



## **VITORIA-GASTEIZKO GIZARTE KONTSEILUAREN NAHITAEZKO TXOSTENA, 2025eko UDAL AURREKONTURAKO PROPOSAMENARI BURUZKOA**

### **SARRERA**

Indarrean dagoen Vitoria-Gasteizko Udalaren Herritarren Partaidetzarako Erregelamendu Organikoak, 78. artikuluan, udalerriko Gizarte Kontseiluaren beste eginkizun batzuen artean, honako hau jasotzen du:

"Urteko aurrekontu-proiektuari buruzko nahitaezko txostena egitea"

Gobernu Taldeak abenduaren 10ean onartu zuen 2025erako aurrekontu-proiektua Gobernu Batzordean, eta abenduaren 17an aurkeztu zuen proiektua jendaurreko entzunaldian.

Aurrekontuen parte-hartze prozesurako, urrian eta azaroan honako Auzogune eta Elkargune hauek deitu dira:

- Zabalzana, Ibaiondo, Lakua – Abetxuko Auzoguneen baterako deialdia.
- Judimendi, Salburua, Hegoalde Auzoguneen baterako deialdia.
- Iparralde, El Pilar, Aldabe Auzoguneen baterako deialdia
- Elkarguneen deialdia ere egin zen aldi berean.

Adinekoen Elkargoa aurrekontuak aurkeztu aurretik eta jendaurrean entzunaldia eman ondoren deitzen da

Auzogunetan eta elkarguneetan jasotako proposamenetatik, dokumentu bat bidaltzen zaie gobernu-taldeari eta talde politikoei.

Proposamen horiei abenduaren 30ean eman zitzaizen erantzuna.

Horrenbestez, gobernu-taldeak 2025eko aurrekonturako Gizarte Kontseiluaren proposamenen dokumentuari emandako erantzuna jaso ondoren, eta urtarrilaren 7an lan-bilkura egin ondoren, Kontseilu honek nahitaezko txosten hau egitea erabaki du.



## **AURREKONTU-PROIEKTUAREN AZTERKETARI BURUZ**

Gobernu Taldeak abenduaren 10ean onartu zuen 2025erako aurrekontu-proiektua Gobernu Batzordean, eta abenduaren 17an aurkeztu zuen proiektua jendaurreko entzunaldian.

Aurrekontu-proiektuari dagokionez, Gizarte Kontseiluak honako gogoeta hauek egiten ditu:

### **Mugikortasunerako eta kulturarako aurrekontua eta baliabideen esleipena**

Mugikortasunera eta kulturara bideratutako aurrekontuari dagokionez, Gizarte Kontseiluak ikusten du ez direla argi eta garbi zehaztu eremu horiek. Gaur egun, mugikortasunera eta kulturara bideratutako partidak hainbat sailetan banatuta daude, eta horrek zaildu egiten du udalerrian eremu horietara bideratutako baliabideak osorik ulertzea.

Aurrekontuaren etorkizuneko edizioetan mugikortasunarekin eta kulturarekin lotutako partiden informazioa batera adieraztea proposatzen da, edozein sailetakoak direla ere. Horrela, bi arlo horietan garatzen diren inbertsio eta proiektuen ebaluazio zehatzagoa egingo litzateke.

### **Garbitasuna: Aurrekontu-partidaren eta emandako zerbitzuaren arteko loturarik eza**

Garbiketarako aurrekontu-partidaren eta udalerrian ematen den garbiketa-zerbitzuaren artean loturarik ez dagoela adierazten dugu. Zalantzak sortzen dizkigu aurrekontua garbiketa-beharrak betetzeko modu egoki eta eraginkorrean erabiltzen ari ote den.

### **Auzo-elkarteentzako partida**

Gure ustez, ez da nahikoa auzo-elkarteak diruz laguntzeko aurrekontu-partida. Gaur egungo zuzkidurak ez die erantzuten erakunde horien premiei, baliabide nahikoak behar baitituzte jarduerak eta proiektuak aurrera eramateko.

Gainera, aurrekontuaren aurrerapenean auzo-elkarteei emandako dirulaguntza eta hitzarmenei buruz aurkeztutako informazioa ez da behar bezain argia izan, eta horrek nahasteak sortzen ditu zifren interpretazioan. Dirulaguntza eta hitzarmenen partidak batera ez zenbatzea iradokitzen da.

### **ELZ bezalako partida handiei buruzko informazio zehatza**

Proposatzen dugu ELZ bezalako partida handietako gastuaren aurrekontua modu informatiboagoan aurkeztea, aurrekontu-esleipen osoa zehazteaz gain, baliabide horiek ELZ osatzen duten zerbitzu eta jardueren artean nola banatzen diren ere zehaztuz. Garbiketarako aurrekontu-partidaren eta udalerrian ematen den garbiketa-zerbitzuaren artean loturarik ez dagoela adierazten dugu. Zalantzak sortzen dizkigu aurrekontua garbiketa-beharrak betetzeko modu egoki eta eraginkorrean erabiltzen ari ote den.



## **PARTE-HARTZE PROZESUA ITZULTZEARI BURUZ**

Gizarte Kontseiluak 2025eko aurrekonturako 460 proposamen aurkeztu zituen bere txostenean. Proposamenen dokumentuan, 2024ko prozesuko proposamenak ere jasotzen dira, erantzun ez zirelako.

Gobernu-taldeak erantzun-dokumentu bat bidali zuen departameto eta auzogune/elkargunean jasotako proposamenaren arabera.

### **Ereduzko erantzunen metodologiaren balorazioa**

Hartutako metodologiari dagokionez, Gizarte Kontseiluak positibotzat jotzen du ereduzko erantzunak sartzeari, aurkeztutako proposamenen erantzunen estandarizazioa eta argitasuna errazten baitu. Metodologia horrek prozesua hobeto ulertzen eta antolatzen laguntzen du.

Hala ere, ikuspegi horrek, erabilgarria izan arren, tarte txikia uzten du Gizarte Kontseiluak aurrekontuan aldaketak iradoki ahal izateko. Proposamenen jarraipena egiteko hobekuntzak sartzeari onuragarria izango litzateke. Adibidez, proposamenak lehenestea kontuan hartzen duen kategoria bat sartuz.

### **Erantzunak itzultzea**

Gizarte Kontseiluaren ustez, 2023an aurkeztutako proposamenei erantzun zaien arren, urte horretarako erantzunen desfasea handia izan da.

### **Erantzunen estatistikak.**

Itzulketak-estatistikei dagokienez, ikusi dugu lortutako emaitzek ez dutela ondorio garrantzitsurik ematen. Prozesua ebaluatzeko datu baliagarriak aurkeztzen badira ere, ez da ondorio esanguratsurik ateratzen nahitaezko txostenean sartzeko.



RESPUESTA TIPO	CANTIDAD	PORCENTAJE (%)
ACEPTADA_1. Está ya incluida dentro del Proyecto de presupuestos (Corriente e Inversiones).	65	14
ACEPTADA_2.Existe una partida recoge un proyecto, actuación o gasto cuyos objetivos o finalidades son las mismas. Detallar partida y objetivos comunes	17	4
INCLUIDA_PLAN DE BARRIOS. La propuesta es adecuada y se someterá a una evaluación y análisis mas detallado y una vez se haya completado el mismo, se decidirá el momento oportuno para su implementación en presupuesto.	46	10
CONDICIONADA_TÉCNICA_1. Análisis y evaluación técnica: La propuesta es adecuada y se someterá a una evaluación y análisis mas detallado y una vez se haya completado el mismo, se decidirá el momento oportuno para su implementación en presupuesto.	34	7
CONDICIONADA_TÉCNICA_2. Requiere análisis previo en coordinación con otros departamentos: La propuesta es pertinente, pero necesita ser evaluada y coordinada con otros departamentos o áreas municipales para garantizar su alineación con otros proyectos en curso o su viabilidad. Se decidirá el momento oportuno para su implementación en presupuesto. (Corriente o Capital)	11	2
CONDICIONADA_TÉCNICA_3. Requiere estudio de la Normativa vigente y ver las competencias del Ayuntamiento en dicha materia y ver la coordinación con otras Administraciones para evitar duplicidades y buscar sinergias a la hora de desarrollar los proyectos solicitados. Una vez analizado si es factible, se decidirá el momento oportuno para su implementación en presupuesto. (Corriente o Capital)	9	2
CONDICIONADA_PRESUPUESTO_1. Pendiente de prioridades presupuestarias en esta legislatura. La propuesta está alineada con los objetivos del Ayuntamiento y del Departamento. Aunque actualmente no está contemplada en el presupuesto actual, se valorará su inclusión en próximos presupuestos, priorizando su implementación cuando las circunstancias presupuestarias lo permiten. (Corriente y capital).	59	13
CONDICIONADA_PRESUPUESTO_2. Posible implementación condicionada a financiación adicional: La propuesta está alineada con los objetivos del Ayuntamiento y del Departamento, pero actualmente no está contemplada en el presupuesto actual, y queda condicionada a que exista financiación extraordinaria. (Corriente y capital).	5	1
CONDICIONADA_PRESUPUESTO_3 - Implementación sujeta a disponibilidad presupuestaria futura: La propuesta no está contemplada en los presupuestos actuales ni se prevé su implementación en el corto o medio plazo. Dependerá de la evolución de las prioridades presupuestarias y de la asignación de recursos en los próximos años. (Corriente y capital).	19	4



NO INCORPORADA_1 - La propuesta no puede ser llevada a cabo debido a criterios técnicos objetivos, evaluables y medibles que impiden su implementación. Se detallarán los aspectos técnicos específicos que impiden la viabilidad de la propuesta. Sin incurrir en juicios de valor	37	8
NO INCORPORADA_2. No permite llevarlo a cabo la Normativa vigente, Está fuera de las competencias municipales o se está desarrollando en cierta medida por otra Administración: La propuesta no se considera dentro de las competencias actuales del Ayuntamiento, no se puede llevar a cabo con la Normativa vigente en dicha materia y en estos momentos en su totalidad o en parte se está desarrollando por otras Administraciones, por lo que no es posible atender en estos momentos dicha propuesta. (Normalmente para gasto corriente)	6	1
SE DA INFORMACIÓN DE LOS CRITERIOS TÉCNICOS DEL SERVICIO PRESTADO	18	4
RESPUESTA DE OTRO TIPO	84	18
REPETIDA	10	2
NO CORRESPONDE A ESTE DEPARTAMENTO	9	2
Esta medida no depende de partida presupuestaria nueva , es ampliación de contrato de limpieza	16	3
SIN RESPONDER / PENDIENTE RESPUESTA	15	3
<b>TOTAL</b>	<b>460</b>	<b>100</b>



## **PARTE-HARTZE PROZESUAREN METODOLOGIARI BURUZ**

### **Parte-hartze prozesuaren hasiera**

Komenigarritzat jotzen da Gizarte Kontseiluaren bilkura bat egitea 2025eko maiatzean, aurrekontuen hurrengo parte-hartze prozesuaren kronograma prestatzeko.

### **Auzoguneen batuketa**

Aurrekontua egiteko erabilitako metodologiari dagokionez, garrantzitsutzat jotzen da auzoguneak ez batzea, partaidetza-organo bakoitzaren espezifikotasuna galtzen bait da.

### **Parte hartzeko organoen deialdia, aurrekontuak aurkeztu aurretik edo ondoren.**

Gizarte Kontseiluak adierazi nahi du proposamenek gobernu-taldeak aurkeztutako aurrekontuan eragina izateko denbora egokia aurrekontua aurkeztu aurretik izaten dela. Komeni da auzogunei eta elkarguneei jakinaraztea behin aurrekontu-proiektua aurkeztuta, beste Alberdi politikoen proposamen bidez bakarrik alda daitekeela.

### **Proposamenak egiteko denbora gehiago**

Proposamenak egiteko denbora gehiago ematea proposatu da. Epe luzeago batek aukera emango lieke partaidetza-organoei beharren azterketan sakontzeko eta proposamen osoagoak eta ondo oinarrituak garatzeko, eta horrek kalitate handiagoa emango lieke aurkeztutako gomendioei.

### **Proposamenen testuinguru estrategikoa**

Prozesuaren metodologia hobetze aldera, iradokitzen da proposamenekin batera testuinguru estrategikoa izatea edo eskaera puntualtzat hartzea. Horri esker, iradokizun bakoitzak partaidetza-prozesuaren barruan duen garrantzia ulertu ahal izango litzateke.

Fdo: José Luis Ochoa  
Gizarte Kontseiluko ordezkaria

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 9a